


Magnitudeak eta neurriak

NEURRI SISTEMA HAMARTARRA



1) Osatu taulak:

Magnitudea: luzera




Multiploak (Metroa baino handiagoak)				Azpimultiploak (Metroa baino txikiagoak)		
			Metroa			
			m			

Magnitudea: edukiera




Multiploak (Litroa baino handiagoak)				Azpimultiploak Litroa baino txikiagoak		
			Litroa			
			l			

Magnitudea: masa (pisua)



Multiploak (Gramoa baino handiagoak)				Azpimultiploak (Gramoa baino txikiagoak)		
			Gramoa			
			g			

2) Dakizuenez, goiko unitate guztiak erabil ditzakezue neurri bat adierazteko. Baina beti, emandako datuak ulergarria izan behar du. Horretarako, zenbakiaren irakurketa gehien sinplifikatuko duen unitatea erabiltzea komeni da. Begiratu hurrengo adibideak eta aukeratu kasu bakoitzerako egokiena den neurri unitatea.



Inurri baten luzera:

2,5 cm


0,000025 km



Hemen dagoen esnea:

6000 ml

6 l



Euskal artzainaren pisua:

30 kg


30 000 000 mg



Tximeleta honen pisua:

0,003 kg

3 g



Anboto mendia:

1331 m

1 331 000 mm



Autoari botako diogun gasolina:

25 l

0,25 hl

- 3) Aurreko ariketako egoera bakoitzean emandako bi neurriak zuzenak dira, neurri horiek baliokideak dira eta. Baina, inolako zalantzarik gabe, bat bestea baino egokiagoa da.

$$3\ 000\ 000\ \text{mm} = 3\ \text{km}$$

Horregatik, ezinbestekoa da edozein neurri batean unitatea aldaketa nola egin jakitea. Horretarako, hemen duzue oso azalpen argia. [Egin klik](#) eta entzun arretaz!

Hona hemen zenbait adibide:

- 427 m dm-tan adierazteko, unitate hori 10 bider txikiagoa denez, zenbakia 10 bider handiagoa izan behar du:

$$427 \times 10 = 4270$$

$$427\ \text{m} = 4270\ \text{dm}$$

- 5 l cl-tan adierazteko, unitate berria 100 bider txikiagoa denez, zenbakiak 100 bider handiagoa izan behar du:

$$5 \times 100 = 500$$

$$5\ \text{l} = 500\ \text{cl}$$

- 12000 g kg-tan adierazteko, unitate berria 1000 bider handiagoa denez, emaitzak 1000 bider txikiagoa izan behar du:

$$12000 : 1000 = 12$$

$$12000\ \text{g} = 12\ \text{kg}$$

Hemendik aurrera prozedura erabiltzeko zenbait ariketa dituzue. Gogoratu unitate aldaketak egitean, magnitude bakoitzari dagokion taula ere oso lagungarria dela. Beraz, izan eskura eta ekin lanari!

4) Adierazi hurrengo neurriak metroetan. Aldaketa bakoitzean prozedura ere azaldu behar duzue, emandako adibidean agertzen den bezala.

$$3 \text{ km} \rightarrow 3 \times 1000 = 3000 \text{ m}$$

$$70 \text{ dm} \rightarrow 70 : 10 = 7 \text{ m}$$

$$70 \text{ hm} \rightarrow$$

$$28 \text{ dam} \rightarrow$$

$$26 \text{ km} \rightarrow$$

$$3 \text{ dam} \rightarrow$$

$$58 \text{ hm} \rightarrow$$

$$1100 \text{ cm} \rightarrow$$

$$8000 \text{ mm} \rightarrow$$

$$40 \text{ dm} \rightarrow$$

$$500 \text{ cm} \rightarrow$$

$$780 \text{ dm} \rightarrow$$

5) Osatu, adibidean bezala:

$$3 \text{ hl} = 200 \text{ l} + 100 \text{ l}$$

$$5 \text{ l} = 2500 \text{ ml} + 2500 \text{ ml}$$

- $2 \text{ l} = 80 \text{ cl} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ cl}$
- $3 \text{ l} = 500 \text{ ml} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ ml}$
- $14 \text{ dal} = 7 \text{ l} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ l}$
- $6 \text{ hl} = 150 \text{ l} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ l}$
- $17 \text{ dl} = \underline{\hspace{2cm}} \text{ ml} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ ml}$

- $37 \text{ l} = 2000 \text{ cl} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ cl}$
- $7 \text{ l} = 50 \text{ dl} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ cl}$
- $2 \text{ kl} = 1300 \text{ l} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ l}$
- $4 \text{ l} = 120 \text{ cl} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ ml}$
- $9 \text{ dal} = \underline{\hspace{2cm}} \text{ l} + \underline{\hspace{2cm}} \text{ l}$

6) Oso masa kopuru handiak neurtzeko, **tona** erabiltzen dugu. Tona batek 1000 kilogramo dauzka eta bere ikurra **t** da.

$$1 \text{ t} = 1000 \text{ kg}$$

Hori ere kontuan hartuta, ordenatu honako masa kopuru hauek handienetik txikienera (erabili adierazpen matematiko zuzena).

400 cg 2 dag 600 kg 0,5 t 90 dg 7270 g